

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN**

TOPAKETAK

www.udaltop.eus



TALDE LANEAN SORTUTAKO EDUKIEN BILDUMA

2019ko maiatza



UDALTOP 2019: Elkar ulertzetik elkarrekin lan egitera... Ados?

Talde-lana: elkar ulertzetik elkarrekin lan egitera. Berrikuntza sozialerako plataforma bat diseinatzen saiatuko gara. Ados?

EGITARAUA:

- Harrera, taldea espazioan kokatu eta aurkezpenak
- Hasierako hausnarketa: nori entzun behar diogu?
- Plataformaren entzute eta kosorkuntza faseak diseinatu
- Balorazioa: zer daramagu gurera?

TALDEETAN JASOTAKO EDUKIAK

EKOSISTEMAREN MAPA: NORI ENTZUN BEHAR DIOGU GURE UDALERRIAN?

ERAGILEAK:

- **Herriko aniztasun osoa "ordezkatzeko" dituzten herritarrak:** euskaldunak, ia euskaldunak eta bereziki erdaldunak; euskaratik urrunago dauden herritarrak (euskaraz ez dakitenak, euskaratik antolatzen diren ekimenetara joaten ez direnak, norbera [euskara teknikaria] deseroso jartzen duten herritarrak, euskara ikasten ari direnak, alderdi eta eragileak...); gaian interesa izan edo iritzia eman dezaketen herritarrak eta herritar taldeak; adin guztiak, hizkuntza guztietako hiztunak; kuadrillak; jubilatutakoak; Erretiratuen elkarteak; umeak; behar ezberdinetakoak (langabezia, premia bereziak...), etxeoandreak, baserritarrak, herritarren beharrei erantzun behar diotenak; Etorkinak eta beren sareak, migratzaileak eta bertakoak, elkarteak...
- **Pertsona berritzaileak**
- **Liderrak eta "titulurik" gabeko herritarrak:** Iritzi sortzaileak; pertsonak, euskararen normalizazioan erabaki batzuk hartu dituzten entitateak, aitzindariak, bidegileak... Gaiaren inguruko adituak... Entitateetako buruak barik, beheko daudenak, kasurako kirol elkarteetako entrenatzaileak eta kirolariak, ikastetxeetako irakasleak eta jantokiko langileak...
- **Elkartegintza:** kirol elkarteak, euskalgintzako elkarteak, jubilatutakoak, merkatariak, bertso-eskolak, auzo elkarteak, elkarte gastronomikoak, kultur taldeak; Aisialdi elkarteak, programatzaileak eta zerbitzu enpresak; Auzo/herrietako elkarteak; Jai batzordeak; Etxe erregionalak (Galiziarren etxea, Extremeñoen etxea, andaluziarrena...)
- Berdintasunaren arloa, **mugimendu feminista**



- **Gazteak**, gazte mugimendua, gaztetxeak, lonjetako gazteak, Gazte taldeak, Gazte Asanblada...
- **Kulturako** erreferenteak eta eragileak, sortzaileak; herriko bertso-eskolak...
- **Euskalgintza**: Betiko euskaltzaleak, euskaltzale mugimendu berria; Euskaltegiak...
- **Sindikatuak**, langileak...
- **Alderdi politikoak**, politikariak...
- **Arlo sozioekonomikoa**, enpresa mundua, merkatari txikiak, tabernariak, merkatari elkarteak, ostalariak, enpresa munduko eragileak, erabakiguneetan daudenak; Enpresarien elkarteak; Banketxeak...
- **Hezkuntza** arloko erakundeak: Ikastetxeak (gurasoen elkarte eta batzordeak barne), guraso euskaldunak, guraso ia euskaldunak, DBH eta batxilergokoak irakasleak (normalkuntzakoak ez); Musika eskolak; Haur eskolak eta haurtzaindegiak; Ludotekako hezitzaileak; Unibertsitateak...
- **Udalak**: Udalbatza, erakundeetako ordezkariak, sail ezberdinetako teknikariak, eskualdeko gainontzeko udalak... Garapen agentziak
- **Zerbitzu publikoko zentroak**: osasun etxeak, Kiroldegia, Kulturetxea (eta Kultur Mahaia),
- **Udalaz gaindiko erakunde publikoak**: eskualde mailakoak (garapen agentziak), lurralde mailakoak (Aldundiaren bulegoak) edo EAE mailakoak (Lanbide); Administrazio orokorra (INEM, Lanbide, OCU, RENFE...)
- **Eliza(k)** eta elkarte erlijiosoak; Kristau komunitateaz besteko komunitate erlijiosoak...
- **Turismoko** eragileak: enpresak, Herrira datozen bisitariak...
- **Eragile digitalak**
- **Komunikabideak**, bereizki, tokiko komunikabideak; kazetariak, iritzi-sortzaileak...

KONEXIOAK ere irudikatu (eta eguneratuta mantendu) behar ditugu mapeoan:

- Eragileen arteko konexioak (eta harreman sareetako nodoak...)
- Eragileen proiektuen arteko loturak eta konexioetarako erabiltzen dituzten kanalak...
- Proiektu esanguratsuak eta proiektu horien jasotzaileak.



ENTZUTE FASEAREN DISEINUA

Entzute aktiborako zer/nola/nork egin?

- Langile guztiek bata besteara entzun; bakoitzaren ideiak, nahiak...
- Galderen bitartez, dinamiken bitartez
- Bideratzaileen bitartez
- Bakarkako elkarrizketak / taldeko elkarrizketak eta eztabaidak (eragin sektore berdin eta ezberdinetakoak).
- Helburu taldeak-zuzeneko eragina dutenak. Konfiantza giroan.
- Bitartekariak erabili-eraginkorrakoak izateko (eta elkarrizketatzaile "aseptiboagoak" lortzeko)
- Kezkak jaso, gutxieneko gidoi batekin.
- Taldekatu izaeraren arabera (garrantzia/prozesuaren arabera).
- Udalak bultzatuta, baina talde eragilearekin > Mahaiaren osaketa > sistema diseinatu. Lidergo partekatua.
- Abiatu herritarren kezka orokorretatik, eta ekarri euskarara.
- Entzute aktiborako, aktoreen artean sortutako HIRUGARREN espazio bat lortzea, ez dena batez ere udalarena edo gizarte eragileena. Partekatua izango da. Lidergo partekatuaren ideia.
- Metanarratibak bi planotan jaso: eragileen posizio orokorra eta iritzi pertsonalak.
- Talde operatibo erreferentzial batek bideratu beharko luke, Gobernu Batzorde (Ireki) batek adostutako irizpideen arabera. Plataformaren abiapuntutik bertatik elkarlana baldin badago (eragileak&erakundeak), asko irabaziko dugu.
- Ariketa kolektibo bat egin behar da >> deialdi irekia (kolektiboaren tamainaren arabera, esparruka), ohiko komunikazio kanalak erabiliz, zuzenean parte-hartzea bermatzen saiatuz... "Edozein" hizkuntzatan parte-hartzea ahalbidetuz (itzulpen/interpretazio zerbitzua), ideien sortzaile eta sustatzaile gehiago lortuko ditugu.
- Elkarre edo kolektibo bakoitzeko errealitatea ondo ezagutzen duen ordezkariak identifikatu, entzute prozesu horretako une egokia bilatzeko batzarra egin dadila hain modu ez formalean: partida baten ostean, etorkinen aldeko jaialdi batean...)
- Ekosistemaren mapeo ona egin. Interlokutorea identifikatu.
- Nork? proiektuko koordinatzaileak. Entzuten ikasi duen norbaitek/aditua. Euskara teknikaria.
- Nola? Aurrez aurreko kontaktu batean, bilera formal edo informala, konfiantzazko guneak sortuz (horretarako dauden tresnak erabiliz) non bakoitzak aukera izango duen bere narratiba azaltzeko.
- Banakako elkarrizketa sakonak egin, taldekako hausnarketak ere bai. Lehentasunak ezarri. Aurrez aurre, telefonoz eta inkesta bidez.
- Kanpo aholkularitzaren bidez.
- Elkarrizketatuaren konfiantzazko pertsona batek egin entzutea, errazago iristeko narratibetara.
- Aurretik ezagutzen saiatu eta aurrez aurre elkartu konfiantza sortzeko.
- Nork? Instituzioaren zilegitasuna duen talde eragileak (administrazioa, euskara teknikaria, euskalgintza)
- Solaskideen lagin kualitatiboa aukeratu elkarrizketak egiteko
- Ekosistemaren mapako ordezkariarekin taldeak antolatu, focus group
- Taldeak osatzerakoan, aniztasuna eta interes komunak izatea zaindu.
- Inkesta zabalak egin, behaketak eta inkesta "tranpak" ere bai

**Entzute digitalean zer/nola/nork egin?**

- Datu ekonomikoak, funtzionamendua, sektoreen kezka >> galdetuta, pertzepzio subjektiboa >> erraztaile/bideratzaileak, koordinatzaileak, udal agenteak
- Entzute digitalak ematen duen anonimotasuna aprobetxatu.
- Zubigintza.
- Datu pertsonalak lantzeko etika-batzorde baten beharra, giza eskubideak bermatzeko.
- Sare sozialak bisualagoak dira baina hori kudeatzen jakin behar da.
- Aditu batek landu beharko lituzke. Kanpoko laguntza beharko dugu (aholkularitza talde bat + euskara teknikariaren laguntza)
- Herriko "frikiak" inplikatu, interneten sareetan asko ibiltzen direnak: eurek diseinatu ZER. Kanpoko laguntza teknikoa.
- Tresna digitalak erabili bi norantzetako komunikazio-kanalak sortzeko.
- Sare sozialetan, estatistiketan, udal erroldan... esaten dena behatu.
- Zer? Norbanakoak berea transmititzeko tresnak aktibatu, galdetegi, testigantza, buzoiak...
- Nola? Tresna digitalen bidez: weborriak, sareak...komunikazio eta zabalkunde kanpaina bat eginez. Sareetako iritzi sortzaileak identifikatu. Udalaren web orriaren erabilera aztertu.
- Nork? Proiektua bultzatu eta horren berri ematen duten eragile guztiek. Adituak
- Herriko eragile digital indartsuak identifikatu, behatu, aliatu bihurtu eta tresna gisa erabili
- Eragileen efektu biderkatzailea (bozgorailua). Eragile bakoitzaren inguruko infoa/jarduera digitala aztertu (estatistikak, datuak... arakatu)

Entzundako guztiaren analisia nork/nola/egin behar du?

- Esparruka, sektoreetako partaideekin, arlo guztietako partaidetza ziurtatuz
- Foro irekiak
- Interpretazioa: bitartekariak; analisia: teknikoak.
- Talde Eragileak, entresaka eta ebaluazioa eginez.
- Lan teknikoagoa denez, lan-talde bat beharko da. Hala ere, kontrastatu beharra dago parte-hartzaileekin > feedbacka.
- Analisi partekatua
- Nork? Talde eragileak (koordinatzaile eta ordezkariak) gehi adituek. Udala eta herriko eragileak
- Dinamizatzaileak, entzute fasean parte hartu ez dutenak
- Nola? Jasotako informazio guztia batu, ordenatu eta ondorioak ateraz. Bilera bidez. Transkripzioa, ideia nagusiak eta hitz jokoak. Hausnarketa prozesuak martxan jarri desberdinen arteko guneak sortuz.
- Informazioaren antolaketa adituak egin, eta analisia kontraste taldeak (elkarrizketatu batzuk, proiektuetako ekintzaileak...)
- Nola? Baliabide teknikoak behar dira dinamizatzeko.
- Entzute fasea prozesuaren sustatzaileak eta mapatik lortutako aliatuek lideratu behar dute
- Entzute fasearen analisia egiteko 3 eragile funtsezko: parte hartu duten guztiak, sustatzaileak eta Euskal Herritik kanpoko adituak.
- Talde motor kualifikatua (udala, eragile garrantzitsuak, euskalgintza)
- Informazioa jaso, antolatu eta elkarrizketatuekin kontrastatu (berriz entzun)
- Garrantzitsua da aurrez erabakitako adierazleak helburutzat hartzea
- Kanpo aholkularitzak erabiltzea interesgarria izan daiteke

Gainazaleratutako narratibak nola jaso behar ditugu?

- Balioak: bizikidetzak, berdintasuna, parekidetasuna, berrikuntza soziala
- Kuantitatibo/kualitatibo (ondo bereiztu)
- Big data



- Ahalik eta modu argienean.
- Datu orokorrak jasotzeaz gain, saiatu xehetasunetara iristen. Ardatza orokorretik > zehatzetara.
- Narratiba bakarra baino, ezberdinak izan daitezke; OSAGARRIAK. AHALIK ETA OSATUENA izan behar da jasoketa.
- Oztopoak identifikatu, kosorkuntza prozesuan horri aurre egiteko tresnak bilatzeko. Indarguneak eta zer hobetuak ondorioztatu. Indarguneak baliatu eta zer hobetuetan helburuak eta ekintzak diseinatu.
- Txosten batean. Era dinamiko/didaktikoan jaso beharra dago. Balio komunak zein diren argi jarri: zerk batzen gaitu, zerk banatzen gaitu?
- Arloka banatuta jaso.
- Narratiba positiboak eta negatiboak sailkatuta.
- Anlisi guztia txosten batean jaso.
- Nork? Eragileen taldeak. Baliabideek garrantzi handia dute eta dena baldintzatzen dute.
- Emozioak biltzen dituen formatua, agian haiek (entzun ditugunek) sortua.
- Datu basea + arakatutakoa eragileei itzuli emaitzen interpretazio partekatua egiteko.
- Grafikoetan, sormen prozesua errazteko
- Ahalik eta anitzenak eta irekienak izan daitezen, planteamendua izan daiteke narratibek kontuan hartzea, euskaraz gain, eragileek zer bestelako behar edo lan dituzten eta euskarak hor zertan edo nola lagundu dezakeen



KOSORKUNTZA FASEAREN DISEINUA

Nork/nola atera narratibetatik aurrera begirako erronkak eta aukerak?

- Sektoreka eta arloka, publiko nahiz pribatua >> arloko arduradunak langileekin.
- Lan sektoriala eta auzokakoa. Interes komuneke taldeak bere kabuz, batetik, eta Koordinazio orokor bat, bestetik. Elkarguneak: Talde Eragilea eta Gizarte Foroa (errepresentazio osoa vs. borondatea).
- Dinamika parte-hartzaileak lan-ildoak finkatzeko
- Motorra ez dira izan behar erakundeak.
- Erakunde publikoek (herria ordezkatura dagoen neurrian), beharrak, arazoak... detektatu behar ditu, diagnostika egiteko. Ondoren, zein erronka edo aukerari heldu, gainontzeko eragileekin erabaki. Hasieratik lortu behar da konfiantza, saretzetik bertatik.
- Egiaztatu narratibak eta metanarratibak bat datozela. Hala ez bada, ezkutuan gelditzen ari den hori azalera ekartzeko ahalegina egin.
- Entzute prozesuan parte hartu dutenak.
- Entzun enpatiaz
- "GU" berri bat sortu ahalik eta jende gehiena bilduz, operatiboki posiblea den neurrian.
- Indarguneak identifikatuta horiek gehiago indartzeko estrategiak definitu.
- Zer hobetuak ondo ezagututa helburuak markatu eta horiek lortzeko ekintza planaren nondik norakoak ezertu.
- Akordioa lortzeko bideak ezarri eragileen artean.. Kongsentsuatu ahalik eta gehiena
- Udala, herrigintza eta eragina jasoko dutenak. Gidaritza eta laguntza eman aholkularitza enpresak.
- Interpretazio kolektiboan atera erronkak eta aukerak: prozesu edo dinamika laburra izan behar da, neurrikoa (jendeak ez ihes egiteko). Interpretazio kolektiboa antolatzen dutenen artean egon behar dira mapeoa egin dutenen eta informazioa jaso dutenen ordezkariak.
- Espazioa eta denbora mugatu. Erronka komunak bilatu. Guztion irabazi-estrategia "win-win"
- Erronkak adostua izan behar du
- Entzute fasean jaso diren narratibak kontrastatu egin behar dira, irakurketa sakona
- Hizkuntza normalizazioa helburu duten agenteak + berrikuntza sozialeko adituak (berdintasuna, aniztasuna...) mahai bat osatu ordezkari guzti horiekin.
- Lidergo partekatua garrantzia: Udala eta euskalgintza soziala, eta gainerako eragileak

Nork/nola/norekin sortu elkarlanean irtenbideak, ideiak eta proiektu berriak?

- Arloetako arduradun guztiekin dinamika parte-hartzaileak
- Foro zabala: bideak; modulazioa; alde aurretik adostasuna
- Kontraste taldeak
- Talde eragilea sortu: pertsonak, elkarteak, erreferentziazko eragileak, adituak
- Proiektuaren arabera, gidaritza partekatua edo bakarkakoa.
- Proiektu berriekin hasi baino lehen, zer dagoen aztertu, eta indar-metaketarako aukerak baliatu.
- Gaiarekin lotura duten narratibetan ageri diren agente aktiboak.
- Partaide guztiekin edo ahal bait gehienekin adostu
- Inplikatu edo interes taldeei gustatu behar zaie
- Gidaritza partekatua
- Dinamikak egiteko kanpo aholkularitzaren beharra



- Elkarlana, gobernantza partekatua
- Talde mixtoak sortu, egitasmoen artean inter-konexioa dagoela ziurtatzeko.
- Nola kudeatu hizkuntza? Kudeatu behar da.
- Nola? Konfiantza, enpatia, emozioa, zirrara sorraraziz proiektu berriarekiko.
- Nork/norekin? Lidergo partekatua / protagonismoa / babes instituzionala.
- Interesen arabera elkartu (erronkak eta aukerak). Aukeratu (eraginkortasuna, lehentasuna...)
- Herriko sektore estrategikoetako (erronka eta helburuetan lehenetsitakoak) ordezkariekin, eta orain arte euskararekin zerikusi handirik izan ez dutenekin ere (beste helburu batzuk dauzkate). Deialdi orokorra eginez edo zuzeneko gonbitea eginez, eurengana joanda.
- Ekarpinak jasotzeko, teknologia berriak erabiltzea gomendagarria da

Nork/nola erabaki/aukeratu garatutakoak?

- Arloetako ordezkariak
- "Eragin eremua"/inpaktua kontuan hartuta
- Lehentasunak finkatu
- Eragin komuna bilatu
- Egitekoak finkatu eta konpromisoak eskatu
- Aitortu egindako lana
- Proiektua daramanak, gaiari buruz ulertzen duenak, nahiz eta gainontzekoekin lankidetzara beharrezkoa izan eta zubi lana sustatu.
- Gizarte Foroak egin beharko luke aukeraketa.
- Proiektu berriak adostu, elkarrekin finkatutako helburuen arabera.
- Taldean
- Aho batez onartu beharko liriateke estrategikoak diren proiektuak
- dirua jartzen duenak? Denen artean? Denen artean maila berean?
- Prozesu guztiaren hasieran egitura bat definitu behar da, hainbat gunerekin: erabaki-gunea, lantaldea... eta egitura horretan erabaki metodologia, ekintza zehatzak eta kronograma zein izango diren (noiz hasi eta bukatuko den prozesua). Konfiantza giroa sortu.
- Lehenengo puntukoekin landu eta bigarren puntukoekin partekatu/kontrastatu/adostu.
- Proiektuak aukeratzeko, teknologia berriak erabiltzea gomendagarria da

Nork/nola garatu ideia/proiektu berriak?

- Arloz gairako koordinazioa >> batzorde bat osatu
- Arloetako arduradunak izendatu eta ardurak banatu
- Praktika onak ezagutu eta hortik ideia berriak atera
- Gizarte eragileak, udaleko teknikariaren laguntzarekin.
- Gobernu Batzorde Ireki batek garatuko ditu proiektu berriak adostutako rol-banaketa batekin, beti ere, oreka bati eutsita.
- Nork? Talde eragileak
- Sareak sortzea ezinbestekoa
- Nola? Adostasunez. Orain arteko konfrontazio garaia gairatuz elkarlanean
- Funtzio banaketa eginda: eragindako taldeak/egituratutako taldeak + interesa dutenak. Proiekturako berriaz sortu den egitura. Laguntzailea izango liriateke sustatzen duenak (udala adibidez) eta kontratatzen duen enpresa batek (adituak).
- Erabaki guneetan; funtzionamendu arin eta prozeduraz adostua
- Euskara eta bestelako proiektuak kontuan hartuta. Nork? Lehenengo ataleko teknikariak eta dagokion



proiektuko agenteak

- Proiektuak garatzeko, teknologia berriak erabiltzea gomendagarria da

Kosorkuntza fasean zein izan behar da zure profilaren (edo erakundearen) rola kasu desberdin hauetan?

- Dinamizatzea, diruz laguntzea, jarraipena egitea, baliabideak eskaintzea...
- Diskurtsoak eta jakintza gainontzekoekin partekatzea eta adaptatzeko beharra. Esperientziak partekatzeko prestutasuna.
- Denek denena entzutea, narratiba desberdinak kontuan hartzeko eta konfiantza sortzeko.
- **Egitasmo komunitarioetan**, administrazioa 2. planoan (entzuten) eta elkarteak 1. planoan. **Ekimen berritzaile txiki**en kasuan, administrazioa 1. edo 2. planoan eta elkarteekiko harremana egitasmoaren arabera (baliabideak eman behar zaizkie elkartei beren kabuz gara ditzaten proiektuak). **Ekimen berritzaile handi**en kasuan, administrazioa 1. edo 2. planoan, egoeraren arabera. Kosorkuntza proiektua **udal zerbitzu berriak** sortzera datorrenean, elkarteek beharrak agerian utzi behar dituzte, eta administrazio teknikariek entzun eta berrikuntzak exekutatu behar dituzte. **Legedia-berrikuntza**ko kasuetan, elkarteak presio bide izan behar dira, baina lidergoa administrazio politikariek hartu behar dute.
- Ekimenaren arabera izan behar da administrazioak hartu beharreko rola; dinamizatzaile, baliabide jartzaile, erraztaile, zabaltzaile, lider...
- Administrazioak erabaki behar lituzke, besteak entzunda, Udal zerbitzu berriak eta legedia-berrikuntza.
- Gainontzekoak denon artean elkarlanean
- Egitasmo komunitarioetan udala beste bat gehiago da, beste parteek hartzen duten erabakien berritzaile, behatzaile, baliabide jartzaile. Babesa, bermea. Ekimen berritzaile txikia: sustatzaile, diru-laguntza. Ekimen berritzaile handia: sustatzaile, diru-laguntzak bideratzen edota ematen; udal zerbitzu berriak: lege betearazleak, sustatzailea. Legedia-berrikuntza: alderdi teknikoak.
- Finantzazio publikoa eta pribatua bilatu prozesurako.
- Udalak baliabide ekonomikoak jarri → elkarte eta eragileek giza-baliabideak.
- Egitasmo komunitarioak: babestea, erraztea eta funtzio banaketa egiten denean, berari dagozkion funtzioak hartzea
- Ekimen berritzaile txikiak: Babestea
- Ekimen berritzaile handiak: Babestea eta bestelako eragileak inplikatzeko
- Udal zerbitzu berriak: Lidergoa eta zeharlerrokotasuna bermatu
- Legedia-berrikuntza: dagokionari eskatzea legedia administratiboa alde egon dadin, edo oztopotzailea ez izateko.



TALDEKIDEENGANDIK JASOTAKO BALORAZIOAK

Zer daramazu lantokira, etxera ...?

- Entzute-dinamika sakonak praktikan jarri beharra
- Besteari entzuteko beharra
- Irekiak egotea
- Elkarlana > ibilbide luzea > asko dago egiteke
- Benetako elkarlanaren beharra eta berritzeko ausardia
- Konexioa
- Elkarlana
- Elkarlana eta esperientzien berri izatea
- Abstraktua izan da
- Euskararen zeharkakotasuna balio komun baidan
- Inguruan dugun gizartearen ikuspegi sakonagoa bilatu behar dugula. Gehiago entzun behar dugula.
- Ikusten ez dena azaleratzeko beharra.
- Zailagoa izan ahal den egiteko beste modu batean hasi behar dugula.
- Diskurtsuaren eta jardueraren inguruko arrakala gero eta handiagoa dela.
- Kezka. Euskarak Euskal Herriaren etorkizuneko eraldaketan izango duen zentralitatearen inguruan.
- Hutsuneak zeintzuk diren identifikatzeko, mapeorik ez dugula egiten argi ikusi dut, ez dugula horretan denbora gehiegirik inbertitzen.
- Berrestea: gu ari gara eta berrikuntza hauek beste termino batzuekin izendatzen dituzten dagoeneko egiten ditugun gauzak. Hala ere, belarriritara bat sentitu dut.
- Arrakala: diskurtsoa eta gazteekin.
- Elkarlana, elkar entzuteko beharra.
- Lankidetzaren ideia oso garrantzitsua da eta lankidetzaren garatzeko bideak egin behar dira.
- Zehaztasun falta, baina hori esperientziarekin etorriko da. Aritu behar dugu.
- Euskara erdigunean jartzeko beharra.
- Oso aberasgarria izan da. Narratiba kolektiboak azaleratzea oso garrantzitsua da eta ulertu behar dugu zergatik ez dugun gazteak entxufatzea lortzen. Askotan eman dezake bide honek.
- Entzute aktiboaren garrantzia.
- Ederra, Udaltop bat behar dugu gai honekin.
- Zaila ulertzeko, jarraitzeko, digestio falta.
- Lanak egiteko modu berri bat, aukera aurrera egiteko.
- Sistema osotasun moduan hartzearen garrantzia.
- Gu berritzeko prest, zalantzak erakundearekin, nire udalean. Zehar-lerro falta!
- Metodologia bai, baina garrantzitsuagoa da ikuspegia, filosofia, iparra ez galdu!
- Kostatu egin da lanera nola ekarri, nola operatibo bihurtu, baina entzute faseari garrantzia emateko gai da. Asimilatu egin behar da.
- Faltan bota dut praktika, teoria gehiegi, saio eta Berrikuntza plataformarena.
- Erakundeek begira bagaude ere, elkarrekin eta eragileek ere kontuan hartu beharko lukete zein den bere funtzioa, ardura...
- Zenbat ikasteko! eta DESikasteko!
- Euskara teknikarien profileen aniztasuna txertatu behar dugu; ez da asko behar, baina aldatu behar



dugu.

- Plataforman ez dira soilik euskara teknikariak egon behar, baita hauek ere: gizarte hezitzaileak, komunikazio arduradunak...
- Zalantzan jarri behar ditugu gure rolak!
- Normalizaziotik ERALDAKETara pasa behar gara! Euskara biziberritzetik mundua hobetzeko planteamenduetara...
- Aldaketa pertsonala eragin behar digu honek!
- Guztiekin, guztiontzat... barren-barrenetik!
- Galdera eta ideia berriak
- Orain arte planteatu ez ditugun ideiak
- Udalaren zurruntasunaren aurrean, Gorkak aipatutako olatuei nola aurre egin
- Larritasun egoera bizi ez dugun momentu honetan ere egoerari buelta eman beharra
- Elkarlana nola egiten da?
- Non hasi eta non dago aintzat hartu behar dudaren muga? (zeini eta zenbati entzun, horri buruz ari da)
- Hausnarketa prozesu eta plan estrategikoak egiterakoan parte hartzaileak zein dinamikak oso bideratuta egoten dira. Irekiagoak izatea hobe.
- Beste funtzionamendu eredu batera jo behar dugu. Modu berrietara egokitu behar gara denok eta herritarrak iritzia apururik gabe ematen ikasi.
- Entzutearen kulturaren formazioaren garrantzia. Hasieratik gobernantza partekatuan saiatu.
- Planoa zabaltzeko baliagarria. Gizartean eragiten dugu, sozioa kontuan izan.
- Noiz hitz eragin?
- Langileok, teknikariok, entzutera irten behar dugu.
- Pertzepzioa aintzat hartu.
- Ohiko dinamikak aldatu. Administrazio-eragile elkarlana.
- Lan egiteko beste modu bat bila dezakegu. Osagarriak izan gaitezke. Begiradaren dimentsioa zabaldu dezakegu.
- Moduak aldatzeko beharra
- Planak edota proposamenak izatea ondo dagoela, beti ere herria kontuan hartuta. Herriaren egoeratik abiatu beha garena ez dugu ahaztu behar
- Inplikatu berriak bilatu behar ditugu
- Eraldaketa sozialari ekiteko tresna berrien ezagutza
- Lanerako eta dinamizaziorako aukera eta bide berriak
- Bide berriak zabaltzeko beharra
- Modu berritzaileak probatu beharra
- Gu berri bat sortu behar dugu, aurrera jarraitu nahi badugu
- Euskararen biziberritzeak gizarte eraldaketa ekarriko badu, gizartearen barruko narratiba eta balio sistemak ezagutu behar ditugu.
- Administrazioaren eta herri eragileen lotura landu beharra; proiektuen arteko konexioa.
- Gehiago entzun behar dugu.
- Agintariek diskurtso hau entzun behar dute.
- Egiteko moduak derrigor aldatu behar ditugu, bestela euskalgintzako eragileak desagertu egingo gara.
- Entzute-ariketa bat martxan dagoela ikusteak erakusten du ahal dela. Ez da teoria hutsean geratzen.
- Entzute digitala
- Egiteko modu berriak
- Egitasmoak definitzeko modu berri bat
- Administrazioa ez dago prest arintasun/malgutasun honekin lan egiteko; zurrunegia da.
- Entzute fasea interesgarria baina zalantzak nola egin.
- Herritarrak, gizartea ere deseroso sentitu daiteke (deskonexioa badagoela, kezka)



- Balio sistemak eraldaketarako daukan indarra.
- Zeharkakotasunez lan egin behar dela eta horretarako lidergoa landu behar dela
- Prestakuntza eta tresnak behar ditugu gai hauetan (entzute aktiboa, berrikuntza soziala...), adituen laguntza
- Entzute aktiboarena oso-oso garrantzitsua, giltzarria
- Eskualde mailako egitasmoak ez dira nahikoa, ez Bizkaian eta ez Gipuzkoan. Oso errealitate diferenteak daude eskualde berean.
- Kezkarekin noa, entzute aktibotik jasotako narratibek erakusten badigute euskarak ez duela garrantzirik herritarrentzat, zer egingo dugu?
- Euskaraldia ezin da aparteko beste proiektu bat izan, dauzkagun proiektuetan integratu behar dugu Euskaraldia.
- Udaleko esperientziak erakusten digu eraldaketa edo paradigma aldaketa beharra orokorra dela, ez euskara zerbitzuan bakarrik, eta oro har, udaleko beste alorrek premia handiagoa dute.
- Paradigma aldaketa behar beharrezkoa dugu, mikroproiektuetan zentratuegiak gaude.
- Enpresa pribatuan administrazioan baino garatuago daude berrikuntza sozialeko gaiak eta gure egitura hertsitik ateratzea zaila izanagatik, ezinbestekoa da.
- Zer pentsatu handia eman dit.
- Euskalgintzako eragileok sinisten dugu honetan, baina zer egin goikoek lehentasunik ematen ez badiote?
- Zein da bidea, berrikuntza soziala geuk bultzatu ala berrikuntzarako dauden plataformetan hizkuntzaren kudeaketa integratu?
- Lankidetzat da bidea
- Euskararen etsaiak existitzen dira, administrazioan bertan daude. Euskaraldiaren balorazio hitzaldian ez dira aipatu.
- Lautadan kontseilua osatu nahian gabiltza eta honek lagundu egiten gaitu, argia ekarri du (Konplexua ere bai)
- Beste alorreko eragileekin egon beharra.
- Gure burua ez dugu aditutzat hartzen, baina besteek bai. Guk analisi bat eginda eramaten badugu zaila da besteren batek hori aldatzea, analisia denok batera egin beharra daukagu.
- Zailtasuna entzute aktiboa egiteko. Nahi duguna entzuteko edo interpretatzeko arriskua beti dago hor.
- Mapeoan proiektuak ere zaintzea, inplikazioa lortzeko ona.
- Bide bat kontratazioetan zeharkako arloak konpartitzeko, jarraipena egiteko.
- Mapeoan proiektuetan zentratu eta gurea hor zelan txertatu aztertu
- Prozesu hauek proiektu bezala ulertu behar dira. Hauek dira benetako proiektuak. Deskonexioa ez da kasualitatea
- Hizkuntza udalerriko kezka eta langai nagusiekin lotzea garrantzitsua da, jakinda hainbatetan euskara ez dela ardatz (bakarr)a izango
- Urtetako lan jardun estilo batek aurreiritzi ugari sortu ditu hizkuntza teknikarien artean. Orain garaia da hura (ere) aldatzeko
- Lan munduan ere berrikuntza plataformen ideia landu daiteke
- Hizkuntza berrikuntza gizarte garapenaren ideiarekin lotuta dagoela jabetu naiz (berrikuntza soziala)